ZKIA./NÚM. 2022/004711
DATA/FECHA 25/05/2022
ALKATEAREN DEKRETU LIBURUA
LIBRO DE DECRETOS DE ALCALDIA

DECRETO DE ALCALDIA

Visto el acuerdo de Pleno número 281/21/2008-14, de 27 de noviembre, mediante el cual se aprueba inicialmente la Norma Reguladora del Régimen Jurídico de las subvenciones a conceder por el Ayuntamiento de Barakaldo para el desarrollo de las actividades extraescolares, complementarias y de compensación de desigualdades de los Centros Docentes del Municipio.

Visto, asimismo que, tras haber sido expuesta al público, mediante la inserción del correspondiente anuncio en el B.O.B. del lunes 12 de enero de 2009, sin que se produjese ninguna alegación, mediante Decreto de Alcaldía número 01603/2009, de 26 de febrero, se procedió a la aprobación definitiva de la Norma Reguladora señalada en el párrafo anterior.

Visto el informe Técnico emitido por las Técnicas de Educación, de fecha 12/05/2022, informando favorablemente la aprobación de la Convocatoria para el curso 2021-2022.

En base a lo establecido en el Artículo sexto de la Norma Reguladora del Régimen Jurídico de las subvenciones a conceder por el Ayuntamiento de Barakaldo para el desarrollo de las actividades extraescolares, complementarias y de compensación de desigualdades de los Centros Docentes del Municipio, a propuesta de la Delegada del Area de Cultura, Educación, Euskera, Juventud y Prevención de Drogodependencias y en virtud de las facultades que le otorga el artículo 21.1 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local, esta Alcaldía-Presidencia.

DISPONE

PRIMERO.- Aprobar la Convocatoria de las Subvenciones a conceder por el Ayuntamiento de Barakaldo para el desarrollo de Proyectos de extraescolares, complementarias y de compensación de desigualdades de los Centros Docentes del Municipio, durante el Curso Escolar 2021-2022 (Expte.202200609), en los términos que se señalan a continuación:

BARAKALDOKO UDALAK ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA DESBERDINTASUNEN OSABIDERAKO JARDUERAK GARATZEKO UDALERRIKO IKASTEGIEI 2021-2022 IKASTURTEAN EMAN BEHARREKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO DEIALDIA.

Eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta osabiderako jarduerak garatzeko Diru-laguntzen Araubide Juridikoaren Arau Erregulatzaileak ezarritakoarekin bat etorriz, Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Arloak

KONTUHARTZE AURRETIAZKOA
FISCALIZACIÓN PREVIA
ADOS
CONFORME

Herriko Plaza, 1 • 48901 BARAKALDO • Tel.: 944789100 • e-mail: ayuntamiento@barakaldo.eus • http://www.barakaldo.eus • F.I.K./C.I.F. P - 48 - 01700 - H



deialdiaren oinarriak prestatu ditu, Barakaldoko Udalak diru-laguntzok behar bezala kudeatu eta eraginkortasunez kontrolatu ahal izateko tresna izan dezan.

1.- TESTUINGURUA ETA HELBURUA

Barakaldoko Udalak hezkuntza munduan duen konpromisoa udalerri hau hiri hezitzaile bihurtu nahi duten zenbait programa abian jartzera mugatzen da. Horrela, duela hogeiren bat urte, Barakaldoko Udalak programa batzuen artean ikastetxeei diru-laguntzak emateko beren-beregiko programa bat prestatu zuen eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta osabiderako jarduerak garatu ahal izateko.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra betez, Barakaldoko Udalbatzak 2009/02/26an Diru-laguntzei buruzko Araubide Juridikoaren Arau Erregulatzailea onartu zuen, eta 2009ko martxoaren 17an argitaratu zen BAOn.

Eta aipatu Arautegia betez, udalerriko ikastegiek 2021-2022 ikasturtean eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta osabiderako jarduerak garatzeari dagokion deialdiren oinarriak onartu dira.

Deialdiak honako hau du xede:

- Diru-laguntzetarako gehieneko zenbatekoa finkatzea.
- Deialdia argitaratzeko epea eta modua zehaztea.
- Ikastetxeetako eskabideak aurkezteko epeak eta modua ezartzea.
- Eskabideetarako beharkizunak zehaztea.
- Baloratzeko eta puntuatzeko irizpideak finkatzea.
- Baloratzeko faktore zuzentzailea zehaztea.
- Alkateak diru-laguntzak zein epetan ebatziko dituen finkatzea.
- Udalak ikastetxeei zenbateko osoa zein epetan ordainduko dien ezartzea.
- Diru-laguntzen erabilera frogatzeko moduak eta epeak finkatzea.

2.- AURREKONTUA

Barakaldoko Udalak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari buruzko Araudia onartzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 58. artikuluan zehazten duenarekin bat etorriz, udalerriko ikastetxeei emateko gehieneko zenbatekoa finkatu du, 2020-2021 ikasturtean hezkuntza-jarduerak (eskolaz kanpokoak, osagarriak eta osabiderakoak) kudea ditzaten. Guztira, EHUN MILA EUROkoa (100.000,00 €) da aurrekontua, 01000 32000 4810303 aurrekontu-partidan agertzen den bezala.

3.- DEIALDIAREN XEDEA

HAUEK LAGUNDU DITZAKE DIRUZ BARAKALDOKO UDALAK:

a) Funtsean eskola-ordutegitik kanpo eta ahal izanez gero ikasturte osoan egiten diren eskolaz kanpoko jarduerak (antzerkia, zeramika, balleta…) eta eskolaz

kanpoko jarduera irekiak, erregulartasunez egin behar ez direnak (ludoteka, liburutegia, ikasturte bukaerako jaialdiak, kultura-asteak…).

b) Curriculuma hobetzen edo/eta osatzen duten, funtsean eskola-ordutegian egiten diren eta, oro har, zeharkako arloekin lotura berezia duten jarduera osagarriak, hala nola natura ezagutzea eta errespetatzea bultzatzen dutenak eta baterako hezkuntzarekin lotutako ohiturak eta jarrerak sustatzen dituztenak.

c) Gizarte eta hezkuntza arloko desberdintasunen osabiderako laguntza-programak (zereginak ikasteko gelak, hezkuntza-laguntza berezia emateko programak, etab.) eta ikaskuntza normalizatua, arreta, ulermenezko irakurketa eta autoestimua hobetzeko edo/eta garatzeko jarduerak.

d) Eskolako jangelako ordutegiaren aurretik edo/eta ondoren egiten diren jarduerak, osasunerako hezkuntzarekin eta ohitura osasungarriak hartzearekin lotuta badaude betiere.

e) Kirol-jarduerak, hastapenak irakasteko (parte hartu nahi duten ikasle guztiei kirol motak irakasteko) edo jolasean (lehiakortasunik ezean) egiten badira eta helburu bakartzat kirola egitea eta sasoi fisikoa hobetzea badute betiere.

f) Jolastokiak eta jolasaldiak jolastoki eta jolasaldi aktibo bihurtzeko eta ikasleek haietan parte hartzeko programatzen diren jarduerak.

4.- ONURADUNAK

Eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta desberdintasunen osabiderako jarduerak programatzen eta kudeatzen dituzten Barakaldoko ikastetxeei emango dizkie Udalak diru-laguntzak, baldintza hauek betetzen badituzte betiere:

1. Aipatutako jarduerez arduratzen den irakasle bat izendatzea, ikastetxearen erreferentziazko pertsona izan dadin Barakaldoko Udalaren eta Berritzegunearen aurrean.

2. Eskolaz kanpoko jardueren, jarduera osagarrien eta desberdintasunen osabiderako jardueren programak onartzea, Eskola Kontseiluaren edo Ordezkaritza Organo Gorenaren bidez.

3. Aurreko atalean aipatutako programak Ikastetxearen Urteko Planean sartzea.

4. Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren bidez eta, haren izenean, Zuzendaritzaren bidez, Udalarengana jotzea.

5.- DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ARAUBIDEA

Ikastetxeetako eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta



desberdintasunen osabiderako jarduerak gauzatzeko diru-laguntzak emateko Arauaren 5. artikuluaren babesean, diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira.

6.- DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK

Diru-laguntzak emateko irizpideek diru-laguntzen helburuak (araudi honen atarikoaren lehen, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren ataletan azaldutakoak) lortzen laguntzen duten kontzeptuak eta balioak biltzen dituzte, eta bakoitzaren kontura eman daitekeen gehieneko puntu kopurua ere badakarte.

LEHENA. Hauek dira araudi honen atarikoko lehen helburua (*IKASLEEK BARAKALDOREKIN BAT EGITEA, UDALERRIARI BURUZKO EZAGUTZA ETA BERTAKO KIDE DIREN SENTIMENA GARATZEKO HEZKUNTZA EKINTZEN BITARTEZ*) lortzen laguntzen duten kontzeptuak eta bakoitzari dagozkion baremoak:

1.- EZAGUTZA. *Ezagutu Barakaldo* udal-programan parte hartzen duten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak, udalerriaren historia berreskuratzearen, haren oraina ezagutu eta balioestearen eta haren etorkizunaren alde elkartasunean oinarritutako apustu aktiboa egitearen gaineko ezagutza eta zaletasuna sartzen badiete buruan ikasleei, bertatik bertarako lanaren eta ikasgelako lanaren bitartez.

Ikastetxe bakoitzak 40 puntu lor ditzake gehienez ere, eta ikastetxe guztiek batera, 800 PUNTU gehienez ere.

2.- KIDE IZATEKO SENTIMENA. Hainbat efemerideren karietara, ikasleek hiriko ekimenetan parte hartzeko eta Barakaldoko kide diren sentimena lantzeko hezkuntza-jarduerak dinamizatzen dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Alde horretatik, hauek izango ditu kontuan Udalak: Kultura Astea, aratusteak, Eguberria, Olentzero, Errege Magoen jaialdia, ikastetxeko urteroko jaialdia, auzoko jaiak… eta beste hezkuntza-jarduera batzuk.

Ikastetxe bakoitzak jarduerako 10 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 60 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 1.800 PUNTU gehienez ere.

BIGARRENA. Hauek dira araudi honen atarikoko bigarren helburua (*BARAKALDOREKIKO ETA INGURUNE HURBILAREKIKO ELKARBIZITZA BEGIRUNETSUA IZATEA*) lortzen laguntzen duten kontzeptuak eta bakoitzari dagozkion baremoak:

1.- ELKARBIZITZA BEGIRUNETSUA. *Eskolako Agenda 2030* udal-programan parte hartzen duten eta, bertatik bertarako lanaren eta ikasgelako lanaren bidez, garapen iraunkorra eta udalerriarekiko elkarbizitza begirunetsua bultzatzen duten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

KONTUHARTZE AURRETIAZKOA FISCALIZACIÓN PREVIA
ADOS CONFORME





Ikastetxe bakoitzak 180 puntu lor ditzake gehienez ere, eta ikastetxe guztiek batera, 3.600 PUNTU gehienez ere.

2.- INGURUNEAREKIKO EZAGUTZA ETA KONPROMISOA. Ingurune hurbilaren ezagutza eta hura zaintzearekiko eta kontserbatzearekiko konpromisoa sendotzeko hezkuntza-jarduerak diseinatzen eta egiten dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak 10 puntu lor ditzake gehienez ere, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere.

<u>HIRUGARRENA</u>. Hauek dira araudi honen atarikoko hirugarren helburua (*EGOERA BEREZIKI TXARREAN DAUDEN IKASLEEKIKO ETA PERTSONEKIKO ELKARTASUN JARRERA SENDOTZEA*) lortzen laguntzen duten kontzeptuak eta bakoitzari dagozkion baremoak:

1.- <u>DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN IKASLEAK</u>

1.1. FISIKOA

*/ Garuneko paralisia *Monoplegia (gorputz-adar bakarra ukituta); Paraplegia (beheko gorputz-adarrak ukituta); Tetraplegia (goiko eta beheko gorputz-adarrak ukituta) edo Hemiplegia (alde bereko besoa eta hanka ukituta).*

*/ Arantza bifidoa Sortzetiko malformazioa: bizkarrezurra eta muin kanala jaio aurretik ez direnez itxi, lokomozio-aparatuan aldaketa garrantzitsuak gertatzen dira.

*/ Bizkarrezur-muineko lesioak edo garezur-garuneko traumatismoak

*/ Bizkarrezurreko malformazioa

1.2. PSIKIKOA

*/ Adimen atzeratasuna (arina, moderatua, larria edo sakona) ahozko adierazpen eta ulermen gaitasun oinarrizkoak eskuratzeko zailtasuna eragiten duena.

*/ Garapenaren orotariko arazoak (eskizofrenia eta autismoa), egoera berrietara egokitzeko arazoak eta garapen kognitiboan eragozpenak eragiten dituztenak.

1.3. ZENTZUMENEZKOA

*/ Entzuteko desgaitasuna Entzumen galera arinetik (ahopean hitz egitean eta giro zaratatsuetan soilik sortzen direnean arazoak) gorreria sakonera.

*/ Hizkuntza arazoak, mintzamenaren galera partziala edo erabatekoa eragiten dutenak.

*/ Ikusteko desgaitasuna Ikusmen eskasia duten ikasleak (apur bat ikusten dutenak) edo ikasle zeharo itsuak.



Batetik, herritar guztientzako eta, bestetik, araudi honetako 5.5.1., 5.5.2. eta 5.5.3. ataletako ezaugarriak dituzten ikasleak gizarteratzeko eta normalizatzeko hezkuntza-jarduerak abian jartzen dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak jarduerako 10 puntu lor ditzake, eta guztira 20 puntu gehienez, eta ikastetxe guztiek batera, 600 PUNTU gehienez ere.

2.- GUTXIENGO ETNIKOAK. Kulturartekotasuna lantzeko eta, hartara, eskolan normalizatzeko zailtasun bereziak dituzten gutxiengo etnikoetako ikasleak gizarteratzeko, desberdintasunen osabiderako hezkuntza-jarduerak abian jartzen dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak jarduerako 5 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 10 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere.

3. ETORKINAK. Etorkin izateagatik eskolan zailtasun bereziak dituzten ikasleak normalizatze eta gizarteratze aldera, desberdintasunen osabiderako hezkuntza-jarduerak sustatzen dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak jarduerako 5 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 15 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 450 PUNTU gehienez ere.

4.- ZAILTASUNAK DITUZTEN TALDEAK. *Haurren Merkatu Txiki Solidarioa* udal-programaren izaeraren eta planteamenduaren esparruan, inguruan eta beste gizarte eta kultura batzuetan egoera zailean dauden taldeen desberdintasunen osabiderako hezkuntza-jarduerak abian jartzen dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak jarduerako 5 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 15 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 450 PUNTU gehienez ere.

5.- ATZERAPENA IKASKETETAN. Hauetan parte hartzen duten ikasleak:

*/ Hezkuntzan bereziki esku hartzeko programetan.
*/ Curriculum anitzak eratzeko programetan.
*/ Curriculuma norbanakoari egokitzeko programetan.

Aurreko paragrafoan aipatutako ezaugarriak dituzten ikasleen parte-hartzea lantze aldera, desberdintasunen osabiderako hezkuntza-jarduerak diseinatzen eta egiten dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak 5 puntu lor ditzake gehienez ere eskolaz kanpoko jarduerako, jarduera osagarriko edo desberdintasunen osabiderako jarduerako, eta 10 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere –hezkuntzan

Herriko Plaza, 1 • 48901 BARAKALDO • Tel.: 944789100 • e-mail: ayuntamiento@barakaldo.eus • http://www.barakaldo.eus • F.I.K./C.I.F. P - 48 - 01700 - H

KONTUHARTZE AURRETIAZKOA
FISCALIZACIÓN PREVIA
ADOS
CONFORME





bereziki esku hartzeko, curriculum anitzak eratzeko eta curriculuma norbanakoari egokitzeko programetan parte hartzen duten ikasleen gizarteratzea izan behar dute helburu jarduerek–.

6.- BI URTEKOEN GELAK. 2 urteko gelak dituzten eta, hezkuntza-proiektuaren esparruan, adin horretarako haurrentzat berariazko programa bat lantzen duten Barakaldoko ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak 118 puntu lor ditzake gehienez ere, eta ikastetxe guztiek batera, 2.240 PUNTU gehienez ere.

7.- ANALFABETISMOA. Irakurtzen eta idazten hasi edo ikasketetan eta ikasteko abilezietan sakondu nahi duten barakaldarrak ALFABETATZEKO KANPAINAK egiteko, Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Barakaldoko Ikastegiak abian jartzen dituen hezkuntza-jarduerek lor ditzakete diru-laguntzak.

Gehienez ere, 250 PUNTU lor ditzake Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Barakaldoko Ikastegiak aurreko paragrafoan aipatutako ikasleentzako eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta desberdintasunen osabiderako jarduerak egiteko.

LAUGARRENA. Hauek dira araudi honen atarikoko laugarren helburua (*IKASTETXEKO HEZKUNTZA-PROIEKTUARI ARE KALITATE ETA EGOKITASUN HANDIAGOA EMATEA*) lortzen laguntzen duten kontzeptuak eta bakoitzari dagozkion baremoak:

1.- CURRICULUMA SENDOTZEA. *Hezkuntza berritzeko* lantegien ildoko hezkuntza-jarduerak eta ikasleei curriculumeko gaitasunen maila hobetzen laguntzekoak sustatzen dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak jarduerako 5 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 10 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere.

2.- OSASUNA. Ikasleei beren osasun-egoera hobetzen laguntzeko hezkuntza-jarduerak diseinatzen eta egiten dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak, jarduerek behar-beharrezko hainbat gairen ezagutza eta ikaskuntza praktikoa nabarmentzen badute betiere, hala nola lehen laguntzarena, ahoko osasunarena, elikadura osasungarriarena…

Ikastetxe bakoitzak jarduerako 5 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 10 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere.

3.- EUSKARA. Egituraren eta ikuspegiaren karietara, ikasleei euskara ahoz eta idatziz erabiltzeko gaitasunak hobetzen laguntzeko hezkuntza-jarduerak diseinatzen eta egiten dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak jarduerako 5 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 10





guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere.

4.- JOLASALDIAK. Ikasleei jolasaldiak modu ludiko eta onuragarri batean bizitzen eta haietan parte hartzen laguntzeko eskolaz kanpoko hezkuntza-jarduerak, hezkuntza-jarduera osagarriak eta desberdintasunen osabiderako hezkuntza-jarduerak abian jartzen dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak jarduerako 5 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 10 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere.

5.- JANGELA. Aisialdiaren eta hezkuntzaren (ahal izanez gero, jolasaren) alorreko ekintzen bidez, jangela aurreko eta ondoko tarteak sendotzeko hezkuntza-programak eta -jarduerak egiten dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak jarduerako 5 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 10 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere.

6.- BARNETEGIAK eta BASERRI ESKOLAK. Beste kultura batean sakonki murgiltzearen esparruan, intereseko eta gaurkotasuneko gaiak lantzeko, euskararen erabilera hobetzeko, taldearen ezagutza areagotzeko eta harreman bero eta begirunetsuago baten oinarriak ezartzeko hezkuntza-jarduerak diseinatzen eta egiten dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak jarduerako 5 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 20 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 600 PUNTU gehienez ere.

7.- DENBORA. Ikasleen artean balio positiboak lantzeko, astebete baino gehiago irauten duten eskolaz kanpoko hezkuntza-jarduerak, hezkuntza-jarduera osagarriak eta desberdintasunen osabiderako hezkuntza-jarduerak egiten dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak 3 puntu lor ditzake gehienez ere hilabete eta hiru hilabete artean irauten duen jarduerako, eta 6 gehienez ere hiru hilabete baino gehiago irauten duen jarduerako.

Ikastetxe bakoitzak 30 puntu lor ditzake gehienez ere guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 900 PUNTU gehienez ere.

8.- METODOLOGIA. Erabiltzen duten metodologian (*denboren, lekuen, giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketan; ikasleen kopuruan eta, jarduera motaren arabera, banakoen eta taldeen parte-hartzean; eta abarretan)* oinarrituz, parte hartzen duten ikasleak beren aisialdiaren protagonista bihurtzeko eskolaz kanpoko hezkuntza-jarduerak, hezkuntza-jarduera osagarriak eta desberdintasunen osabiderako hezkuntza-jarduerak egiten dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

KONTUHARTZE AURRETIAZKOA
FISCALIZACIÓN PREVIA
ADOS
CONFORME



Ikastetxe bakoitzak jarduerako 5 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 20 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 600 PUNTU gehienez ere.

9.- NORK BERE BALIABIDEAK ERABILTZEA. Eskolaz kanpoko hezkuntza-jarduerak diseinatzeko eta egiteko konpromiso aktiboa hartzeaz gain (jarduerak nork bere egiteaz eta ikastetxeko urteko planean sartzeaz gain), beren azpiegiturak (patioak, guneak eta gelak, atezainak, irakaskuntzarako materiala…) eskainiz, jarduerok berariaz babesten eta sustatzen dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak 10 puntu lor ditzake gehienez ere, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere.

Gainera, eskolaz kanpoko hezkuntza-jarduerak, hezkuntza-jarduera osagarriak eta desberdintasunen osabiderako hezkuntza-jarduerak beren dirua erabiliz babesten dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak 10 puntu lor ditzake gehienez ere 200 eta 300 euro arteko ekarpeneko, 15 gehienez ere 300 eta 600 euro arteko ekarpeneko, eta 20 gehienez ere 600 eurotik gorako ekarpeneko, eta ikastetxe guztiek batera, 600 PUNTU gehienez ere.

10.- BESTE IKASTETXE BATZUEKIKO LANKIDETZA. Kideen arteko erlazioa, komunikazioa eta balioetan bizitzea bultzatzeko, IKASTETXEEN (bi ikastetxeren edo gehiagoren) ARTEKO programak edo/eta jarduerak egiten dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Jarduerak egiten dituzten ikastetxeek 10 puntu bana ditzakete gehienez ere jardueretan parte hartzen duten ikasleen kopurua 20 eta 40 artekoa bada, 20 gehienez ere ikasleen kopurua 40 eta 80 artekoa bada, eta 30 gehienez ere ikasleen kopurua 80tik gorakoa bada, eta ikastetxe guztiek batera 900 PUNTU lor ditzakete gehienez ere.

11.- UDAL PROGRAMETAN PARTE HARTZEA. *Arratsaldeko tutoretza* eta Aizu! udal-programekin lotutako eskolaz kanpoko jardueren bitartez, Bigarren Hezkuntzan eta erdi-mailako heziketa-zikloetan, udalerriko DBHko institutuetan hezitzaile espezializatu batek sustatzen eta gainbegiratzen dituen hezkuntza-jarduerak dinamizatzeko programak egiten dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak 1.200 puntu lor ditzake gehienez ere, eta ikastetxe guztiek batera, 6.000 PUNTU gehienez ere.

Gainera, Lehen Hezkuntzan, *ARRATSALDEKO TUTORETZA ETA AISIALDIAREN DINAMIZAZIOA* programaren esparruan, hezitzaile espezializatu batek sustatzen eta gainbegiratzen dituen eskolaz kanpoko jarduerak egiten dituzten





ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak 1.100 puntu lor ditzake gehienez ere, eta ikastetxe guztiek batera, 2.200 PUNTU gehienez ere.

12.- BIZIKIDETZA PLANA. Beraiek antolatzen dituzten ekintzen (hala nola *Bakearen Astearen*) bitartez, hezkuntza-komunitateko gizarte-estamentuek hobeto elkar uler dezaten eta haien artean harreman hobea sor dadin lantzeko eta bultzatzeko eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta desberdintasunen osabiderako jarduerak sustatzen dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak programako 5 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 10 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere.

13.- GENERO INDARKERIA. Hezkuntza-ekintzak (hala nola *Zereginen trukea*) sustatuz, neska-mutilen arteko errespetua, elkarrizketa eta tolerantzia lantzeko eta, hartara, genero-indarkeriari aurrea hartzeko eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta desberdintasunen osabiderako jarduerak sustatzen dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak programako 5 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 10 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere.

14.- INGURUMENA. Ingurumena kontserbatzeko benetako konpromisoa hartze aldera, ikasleak gure ingurune hurbila zaintzeko eta beste herri eta kultura batzuekin solidario izateko balioetan hezteko eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta desberdintasunen osabiderako jarduerak sustatzen dituzten ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak programako 5 puntu lor ditzake gehienez ere, eta 10 guztira, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere.

BOSGARRENA. Hauek dira araudi honen atarikoko bosgarren helburua (*BAI IKASLEEK, BAI HEZKUNTZA KOMUNITATEKO BESTE KIDEEK MODU AKTIBOAN PARTE HARTZEA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAN, JARDUERA OSAGARRIETAN ETA DESBERDINTASUNEN OSABIDERAKO JARDUERETAN*) lortzen laguntzen duten kontzeptuak eta bakoitzari dagozkion baremoak:

1.- IKASLEAK. Hezkuntza-programaren bidez, ikasleak beren aisialdiaren kudeaketan modu onuragarri batean eta beren kabuz parte hartzera eta eskolaz kanpoko jardueretan, jarduera osagarrietan eta desberdintasunen osabiderako jardueretan modu aktibo batean parte hartzera bultzatzen dituzten Barakaldoko ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzeko ikasle guztien kopuruaren arabera, Barakaldoko Udalari dagokio erabakitzea jarduera jakin batean parte hartzen duten ikasleen kopurua ikastetxeari diru-laguntzak emateko adinakoa den.

KONTUHARTZE AURRETIAZKOA
FISCALIZACIÓN PREVIA
ADOS
CONFORME



Gutxieneko ikasle kopuru batek parte hartu behar du jarduera jakin batean, ikastetxeak hura egiteko diru-laguntza lortzeko, eta, kopuru hori zehazteko, zera hartu behar da kontuan: zenbateraino hartzen duen jarduera gizarteratzailetzat Barakaldoko Udaleko Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Arloaren edo hezkuntza arloan eskumena duenaren barnean eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak edo/eta desberdintasunen osabiderako jarduerak egiteko diru-laguntzak banatzen dituen batzordeak.

Ikastetxe bakoitzak 15 puntu lor ditzake gehienez ere, eta ikastetxe guztiek batera, 450 PUNTU gehienez ere.

2.- GURASOAK. Eskolaz kanpoko jardueren, jarduera osagarrien eta desberdintasunen osabiderako jardueren programa prestatzeko eta egiteko eta haren jarraipena egiteko, gurasoen parte-hartzea erabiltzen duten Barakaldoko ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak 10 puntu lor ditzake gehienez ere, gurasoek zenbateraino parte hartzen duten, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere.

3.- IRAKASLEAK. Eskolaz kanpoko jardueren, jarduera osagarrien eta desberdintasunen osabiderako jardueren programa prestatzeko eta egiteko eta haren jarraipena egiteko, irakasleen parte-hartzea erabiltzen duten Barakaldoko ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak.

Ikastetxe bakoitzak 10 puntu lor ditzake gehienez ere, irakasleek zenbateraino parte hartzen duten, eta ikastetxe guztiek batera, 300 PUNTU gehienez ere.

4.- ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETARAKO ETA JARDUERA OSAGARRIETARAKO IRAKASLEAK (Eusko Jaurlaritzaren mendekoak). Hauetako jardueraren bat dinamizatzeko, Eskolaz Kanpoko Jardueren eta Jarduera Osagarrien Programaren barneko irakasleak dituzten Barakaldoko ikastetxeek lor ditzakete diru-laguntzak:

*/ Ikastetxe bakoitzak 30 puntu lor ditzake gehienez ere, Liburutegiaren esparruan, *Irakurtzeko abentura* programa edo jarduera abian jartzeagatik, eta ikastetxe guztiek batera, 360 PUNTU gehienez ere.
*/ Ikastetxe bakoitzak 100 puntu lor ditzake gehienez ere, Liburutegiaren esparruan, *Ipuin-kontaketa* programa edo jarduera abian jartzeagatik, eta ikastetxe guztiek batera, 1.200 PUNTU gehienez ere.
*/ Ikastetxe bakoitzak 30 puntu lor ditzake gehienez ere Ingurumenaren esparruan abian jartzen duen programa edo jarduerako, eta ikastetxe guztiek batera, 360 PUNTU gehienez ere.
*/ Ikastetxe bakoitzak 30 puntu lor ditzake gehienez ere Arte Plastikoen esparruan abian jartzen duen programa edo jarduerako, eta ikastetxe guztiek batera, 360 PUNTU gehienez ere.

Herriko Plaza, 1 • 48901 BARAKALDO • Tel.: 944789100 • e-mail: ayuntamiento@barakaldo.eus • http://www.barakaldo.eus • F.I.K./C.I.F. P - 48 - 01700 - H

*/ Ikastetxe bakoitzak 30 puntu lor ditzake gehienez ere Komunikazioaren esparruan abian jartzen duen programa edo jarduerako, eta ikastetxe guztiek batera, 360 PUNTU gehienez ere.
*/ Ikastetxe bakoitzak 30 puntu lor ditzake gehienez ere Eskola-kirolaren esparruan abian jartzen duen programa edo jarduerako, eta ikastetxe guztiek batera, 360 PUNTU gehienez ere.
*/ Ikastetxe bakoitzak 30 puntu lor ditzake gehienez ere *Adibidez* aldizkarian parte hartzeagatik, eta ikastetxe guztiek batera, 360 PUNTU gehienez ere.

SEIGARRENA: FAKTORE ZUZENTZAILEA.

Helburu eta balioen multzo zabal honen aurrean, ikasleen benetako banaketa hartu behar da kontuan:

Barakaldoko 2 ikastetxek 200 ikasle baino gutxiago ditu, 3 ikastetxek 200-350 ikasle inguru dituzte. 16 ikastetxek, 350 ikasle baino gehiago baina 700 baino gutxiago dituzte; 4 700 eta 1.000 ikasle artean; eta 3, 1.000 ikasle baino gehiago.

Bistakoa da, ikasle gehien dituzten ikastetxeek giza baliabide eta baliabide material gehiago dituztela, eta eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta osabiderako jarduerak abian jartzeko ahalmen handiagoa dutela.

Hortaz, Udalaren borondatea da diru-laguntzak ikasleen beharrizanen araberakoak izan daitezen eta ez ikastetxeen ahalmenaren araberakoak, horregatik, ondorengo faktore zuzentzaile hau erabiliko du:

-/ 200 ikasle baino gutxiagoko ikastetxeek ....lortzen dituzten puntuak x 3
-/ 200 – 350 ikasle dituzten ikastetxeek .... lortzen dituzten puntuak x 1,5
-/ 350 – 700 ikasle dituzten ikastetxeek .... lortzen dituzten puntuak x 1
-/ 700 – 1.000 ikasle dituzten ikastetxeek ....lortzen dituzten puntuak x 0,75
-/ 1.000 ikasle baino gehiagoko ikastetxeek ....lortzen dituzten puntuak x 0,60

Horrela, 1etik 5erako eskala batean, erdiko tartean (400 – 700 ikasle) dauden ikastetxeei 3ko balioa ematen bazaie, beste ikastetxeak honako eskalaren arabera parekatuko dira

A) 1 x 3 = 3.
B) 2 x 1,5 = 3.
C) 3 x 1 = 3.
D) 4 x 0,75 = 3.
E) 5 x 0,60 = 3.

7.- DEIALDIA ARGITARATZEA

Behin deialdi hau onartuta, Barakaldoko Udalak **B.A.O.n, iragarki taulan eta web orrian argitaratuko du** eta, onuradun izan daitezkeen subjektu guztiei emango

Herriko Plaza, 1 • 48901 BARAKALDO • Tel.: 944789100 • e-mail: ayuntamiento@barakaldo.eus • http://www.barakaldo.eus • F.I.K./C.I.F. P - 48 - 01700 - H



die deialdiaren berri; hau da, Barakaldoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeei.

8.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Gehienez ere hilabeteko epean, deialdia Barakaldoko Udalaren iragarki-taulan eta udal-webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ikastetxeak 2021-2022 ikasturteko eskolaz kanpoko proiektu eta jarduerak, jarduera osagarriak eta deskonpentsazio-jarduerak egiteko diru-laguntzaren eskaera aurkeztuko dio Udalari.

9.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO MODUA

Eskabidea Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Arloari bidali behar da, eta behar bezala beteta aurkeztu beharko da Udaleko Sarrera Erregistro Orokorrean, Udalaren webgunearen egoitza elektronikoan (https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/tramites/acceso.do?id=55) aurki daitezkeen I., II. eta III. eranskinak izeneko ereduen arabera honako bide hauetako baten bidez:

• Udalaren egoitza elektronikoa (ziurtagiri elektronikoa erabili behar da)

• Auzoetan kokatutako udal-bulego elektronikoak (ez da beharrezkoa ziurtagiri elektronikoa erabiltzea).

• Barakaldoko aplikazioa (ziurtagiri elektronikoa erabili behar da).

- **I. ERANSKINA**: **Eskola Kontseiluaren erabakia**, 2021-2022 ikasturterako eskolaz kanpoko jardueren, jarduera osagarrien eta osabiderako jardueren **urteko plana** onartzen duena.

- **II. ERANSKINA: Proiektuak eta jarduerak** azaltzen dituzten **fitxak.**
- **III. ERANSKINA: BANKU-DATUAK** (Transferentzia Bidezko Ordainketa).

10.- ESKABIDEAREN ESKAKIZUNAK

Aurkeztutako jarduerek Arautegi Arautzailearen atarikoan adierazitako helbururen bat lortzea IZAN BEHARKO DUTE XEDE:

- Udalerria hobeto ezagutzea.
- Udalerriarekiko eta ingurunearekiko elkarbizitza hobea izatea.
- Elkartasuna sustatzea.
- Ikastetxeko hezkuntza-proiektuari kalitate handiagoa ematea.
- Parte-hartzea sustatzea.



11.- BIDERATZEA

Aurkeztutako eskabideak direla eta, Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Arloko teknikariari, eskolaz kanpoko jardueren, jarduera osagarrien eta osabiderako jardueren programako arduradunari, edo, horren ordez, Arloko zinegotzi-delegatuak izendatutako teknikariari dagokio eskatzaileek aurkezten dituzten dokumentuak aztertzea eta diru-laguntza lortzeko beharrezko eskakizun formalak eta materialak betetzen dituztela egiaztatzea.

12.- ESKABIDEEN BALORAZIOA

Diru laguntza eskabideak aurkeztu, eta **lau hilabeteko epean, gehienez, ebaluatuko ditu Diru laguntzen Batzordeak.** Hura burutuko duen arloko zinegotzi ordezkariaz gainera, arloko aholkulari exekutiboaz eta, mahaikide gisa, Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Arloko bi teknikariz osatua dago batzordea. Lehenengoaren ordez, Alkateak eskuordetutako zinegotziak jardungo du, eta teknikarien ordez, berriz, arloko zinegotzi ordezkariak izendatutakoak. Batzordeak diru-laguntzak emateko edo ez emateko proposamena egin, eta bakoitzari emango zaizkion zenbatekoak zehaztuko ditu. Teknikari bat izango da batzordeko idazkaria.

13.- BALORATZEKO ETA PUNTUATZEKO IRIZPIDEAK

Ondorengo koadroan agertzen den moduan, ikastetxeek puntuak jaso ahal izango dituzte deialdi honetako 6. artikuluan eta Diru-laguntzen Araubide Juridikoa arautzen duen Arauaren 18.ean jasota dauden helburuen aldeko egitasmo eta jarduerak abiarazteagatik.

Ikastetxe guztien artean, gehienez 30.000 puntu lortu dezakete.

Puntu bakoitzak 3,3 €ko balioa du.

HELBURU OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK	GEHIENEZKO PUNTUAK IKASTETXEKO	GEHIENEZKO PUNTUAK IKASTETXE GUZTIENTZAT
HELBURUA: Udalerria hobeto ezagutzea	***100***	***2.600***
UDALERRIA EZAGUTZEA	40	800
UDALERRIKO KIDE IZATEA	60	1.800
HELBURUA: Udalerriarekiko eta ingurunearekiko elkarbizitza hobea izatea	***190***	***3.900***
UDALERRIAREKIKO ERRESPETUZKO ELKARBIZITZA	180	3.600
INGURUNEAREKIKO KONPROMISOA	10	300
HELBURUA: Elkartasuna sustatzea	***438***	***4.590***
EZGAITASUNEN BAT DUTEN IKASLEAK INTEGRATZEA	20	600
GUTXIENGO ETNIKOAK INTEGRATZEA	10	300
ETORKINAK INTEGRATZEA	15	450

Herriko Plaza, 1 • 48901 BARAKALDO • Tel.: 944789100 • e-mail: ayuntamiento@barakaldo.eus • http://www.barakaldo.eus • F.I.K./C.I.F. P - 48 - 01700 - H



ZAILTASUNAK DITUZTEN TALDEEI LAGUNTZEA	15	450
IKASKETETAN ATZERAPENA DUTEN IKASLEEI LAGUNTZEA	10	300
2 URTEKOEN GELEI LAGUNTZEA	118	2.240
ALFABETATZEKO KANPAINEN GARAPENA	250	250
HELBURUA: Ikastetxeko hezkuntza-proiektuari kalitate handiagoa ematea	***1.410***	***14.500***
CURRICULUMA SENDOTZEA	10	300
OSASUNAREN ALDEKO JARDUERAK	10	300
EUSKARA SUSTATZEA	10	300
JOLASALDIAK INDARTZEA	10	300
JANGELA BULTZATZEA	10	300
BIZIKIDETZA BARNETEGIETAN ETA BASERRI ESKOLETAN	20	600
JARDUERAREN DENBORA GUZTIRA	30	900
ERABILITAKO METODOLOGIA	20	600
IKASTETXEAK BERE BALIABIDEAK JARTZEA	30	900
BESTE IKASTETXE BATZUEKIKO LANKIDETZA	30	900
UDAL PROGRAMETAN PARTE HARTZEA	1.200	8.200
BIZIKIDETZA PLANA DINAMIZATZEA	10	300
GENERO-INDARKERIARI AURREA HARTZEA	10	300
ENERGIA AURREZTEKO KONPROMISOA	10	300
HELBURUA: Parte-hartzea sustatzea	***315***	***4.410***
IKASLEEN PARTE-HARTZEA	15	450
GURASOEN PARTE-HARTZEA	10	300
IRAKASLEEN PARTE-HARTZEA	10	300
ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETARAKO ETA JARDUERA OSAGARRIETARAKO IRAKASLEEN PARTE-HARTZEA	280	3.360

14.- EBAZPENA

Sei hilabeteko epean gehienez, deialdia argitaratutako egunetik zenbatuta, diru-laguntzak emateko ebazpena emango du alkate udalburuak, eta Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Arloak jakinaraziko die ikastetxeei, banan-banan, dena delako ebazpena emateko arrazoi eta irizpide objektiboak azalduz.

15.- JAKINARAZTEKO MODUAK

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie Barakaldoko Udalak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluak ezartzen duenarekin bat.

16.- ORDAINKETA

Gehienez hilabeteko epean, ebazpena eman den egunetik zenbatuta, Udalak, aurrez, zenbateko osoa ordainduko die ikastetxeei.

17.- DIRU-LAGUNTZEN ERABILERA FROGATZEKO EPEA





Diru-laguntza ebazpenaren jakinarazpena jaso eta handik, **gehienez ere, hiru hilabeteko epean,** ikastetxeek ikasturtean zehar proiektuak eta jarduerak egiteko jasotako diru-laguntzen justifikazioa aurkeztu beharko dute udaletxean.

Justifikazioa ezarritako epean aurkezten ez bada, edo dagokion zenbatekora iristen ez bada, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 38. artikulua, indarrean dagoen berandutze-interesa exijituta zordundutako zenbatekoak itzultzeari dagokionez.

18.- DIRU-LAGUNTZEN ERABILERA FROGATZEKO MODUA

Justifikazioa Udaleko Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko da, horretarako prestatutako bideen bidez eta udalaren webgunearen egoitza elektronikoan aurki daitezkeen IV., V. eta VI. eranskinen arabera (https://www.barakaldo.eus/OficinaVirtualBarakaldo/tramites/acceso.do?id=55)

19.- DIRU-LAGUNTZEN ERABILERA FROGATZEKO BALDINTZAK

Ikastetxeek behar bezala beteta aurkeztu beharko dituzte aipatu eranskinak:

Ikastetxeek 2021-2022 ikasturtean garatutako eskolaz kanpoko jardueren, jarduera osagarrien eta osabiderako jardueren edota proiektuen aurrekontuei dagokien kostu osoa justifikatu beharko dute FAKTUREN ETA JATORRIZKO BESTE EDOZEIN AGIRIREN BIDEZ**.**

20.- ERREKURTSOA

Ebazpenak amaitutzat emango du administrazio-bidea, eta, haren aurka, berraztertzeko aukerako errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio eskatzaileek alkate udalburuari, hilabeteko epean ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzietarako epaitegian, jakinarazpena hartu eta hurrengo egunetik zenbatutako bi hilabeteko epean.

Barakaldon, 2022ko maiatzaren 10ean.

OHARPENAK:

- III. eranskineko bankuko datuak (egiaztapen fiskalerako datuak) ikastetxeari buruzkoak izan beharko dira, ez IGEri, ez beste edozein elkarteri buruzkoak.
- Ikastetxearen eta Barakaldoko Udalaren arteko kudeaketa guztietarako kontu-zenbaki bera eraili beharko da.

GARRANTZITSUA



*/ *Ikastegiek HEZKUNTZA EGITASMOAK programatzen dituzte, deialdian adierazten diren baloreak (helburuak) lantzeko.*

*/ *Egitasmo bakoitza JARDUERA baten nahiz gehiagoren bitartez gauzatuko da*

*/ *Hezkuntza egitasmo bakoitzeko, ikastegiak II. eranskinean agertzen dena bete behar du:*

1) *Egitasmoaren izena eta azalpena*

2) *Egitasmoaren jarduerak xehatuta*

ESKABIDEA honako hauekin batera aurkeztu behar da:

*/ *Eskola Kontseiluaren erabakia (1. ERANSKINA)*, Eskolaz kanpoko jardueren, jarduera osagarrien eta osabiderako jardueren urteko plana onartzen duena.

*/ *Hezkuntza egitasmoen azalpena eta horiek abiarazteko jarduerak zehatz-mehatz xehatuta (II. ERANSKINA)*

*/ *Ikastetxeko kontu-zenbakia (III. ERANSKINA)*: Hirugarrenei buruzko datuen orria, deialdiari 3. eranskin gisa txertatua.

Herriko Plaza, 1 • 48901 BARAKALDO • Tel.: 944789100 • e-mail: ayuntamiento@barakaldo.eus • http://www.barakaldo.eus • F.I.K./C.I.F. P - 48 - 01700 - H

CONVOCATORIA DE LAS SUBVENCIONES A CONCEDER POR EL AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO, PARA EL DESARROLLO DE PROYECTOS EXTRAESCOLARES, COMPLEMENTARIOS Y DE COMPENSACIÓN DE DESIGUALDADES DE LOS CENTROS DOCENTES DEL MUNICIPIO, DURANTE EL CURSO 2021-2022

De acuerdo con lo dispuesto en la Norma Reguladora del Régimen Jurídico de Subvenciones para el desarrollo de Proyectos y Actividades Extraescolares, Complementarias y Compensatorias, el Área de Cultura, Educación, Euskera y Juventud, elabora las siguientes Bases de la Convocatoria, con el fin de dotar al Ayuntamiento de Barakaldo de un instrumento que garantice una adecuada gestión y un eficaz control de dichas Subvenciones.

1.- CONTEXTUALIZACIÓN Y FINALIDAD

La implicación del Ayuntamiento de Barakaldo en el mundo Educativo se concreta en la puesta en marcha de una serie de Programas que pretenden hacer de este Municipio una Ciudad Educadora. Por esta razón, hace más de veinte años, el Ayuntamiento de Barakaldo dispuso, entre otros Programas, de uno específico de subvenciones a los Centros Docentes para que pudieran desarrollar los citados Proyectos Educativos.

En cumplimiento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, el Pleno del Ayuntamiento de Barakaldo aprobó el 26/02/09 la Norma Reguladora del Régimen Jurídico de Subvenciones, publicada en el B.O.B. el día 17/03/2009.

Y en cumplimiento de la citada Normativa, se aprueban las Bases de la Convocatoria correspondiente a la realización de Proyectos y Actividades Extraescolares, Complementarias y Compensatorias de los Centros Educativos del Municipio de Barakaldo durante el Curso 2021-2022.

La finalidad de esta Convocatoria es:

- Fijar la cuantía máxima destinada a las subvenciones
- Determinar el plazo y el modo de publicación de la Convocatoria
- Fijar los plazos y las formas de presentación de las solicitudes de los Centros
- Determinar los requisitos de las solicitudes
- Fijar los criterios de valoración y la puntuación
- Determinar el factor corrector de valoración
- Fijar la fecha máxima en la que la Alcaldesa deberá resolver la concesión de subvención
- Fijar el plazo máximo en el que el Ayuntamiento abonará a los Centros la cuantía íntegra
- Fijar los plazos y las formas de presentación de las justificaciones





2.- PRESUPUESTO

El Ayuntamiento de Barakaldo, de conformidad con lo explicitado en el artículo 58 del Real Decreto 887/2006, de 21 de Julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de Noviembre, General de Subvenciones, fija que la cuantía máxima destinada a subvencionar a los Centros Docentes del Municipio para la gestión de sus Proyectos y Actividades Educativas de carácter Extraescolar, Complementario y Compensatorio para el Curso Escolar 2021-2022 asciende a la cantidad de CIEN MIL EUROS (100.000,00 €), tal y como viene reflejado en la partida presupuestaria 01000 32000 4810303.

3.- OBJETO DE LA CONVOCATORIA

PODRÁN SER SUBVENCIONADAS POR EL AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO:

